

Hortaz zer?

TXILLARDEGI



ARDANZA gordinki mintzatu da Chile-raikoa: «nosotros no somos separatistas».

Hots, 'separatista' ez dena, 'unionista' da. Irlandan, adibidez, 'unionista' dira Irlanda britaindarraren aldekoak. Hemen ere bai: PNVa 'unionista' da. Alegia: Españaren barruan egon nahi du, eta Euskal Herria (Hego E.H., jakina) España *errejioetako* bat izatea (ala bi? Ezin esan).

PNVak arazo latza du bere siglan: «Partido Nacionalista Vasco», baina independentzia politikoaren aurka... Bapo, mutilak! 'Nacionalista' omen, baina 'berriketaren' kontra... Alajainkoa! Sexu-askatasunaren alde, baina dibortziaren kontra!

PNV alderdi *karka* da: espanyolista, eskuindarra, elizkoia, anti-abertzalea, folklorikoia, falsua. Berriro esateko: *gaurko Partido Carlista Vascongadoa* da, hertsiki eta zahazki. Errege eta guzti!

Hori jakinda, batzu loriatuta agertzen zaizkigu: «Incluso da a pensar al orfite» (Ardanzari da R. Armandegi jekide aparta) «en lo de la reencarnación de espíritus clarividentes» (sic). Eta honela bukatzen: «¡Que Juan Gorkoa le conserve el coraje y la paciencia que Euskadi tanto necesita!» (sic, sic).

Batzu oso pozik daude PNVa bere horretan ikusita. Zergatik pozik? Bi taldetan bana daitezke horrelakook:

a) Neo-karlista eskuindar espanyalezalek, batetik. Hauek pozik daude PNVa bere toki *espanyolera* eramantutako.

b) Abertzale inoaxok, *buruz motzak*; garbikiago esanda, ezertaz ere jabetzen ez diren asta-kirtenak: Arzalluzek bi eta bi bost direla esan, eta egia hutsa dela sinesten duten horietakoak. Horiek *zozoak* dira, eta soluziorik gabeko jendea; eta hil arte pentsatuko dute PNVa alderdi abertzalea dela.

Gauzak horrela, zer egin?

Arana-Goirik Partido Carlista Vasco-Navarro-ari buruz ideki zuen prozesua berriro hasi.

Zoritxarrez, beste biderik ez.

Printzesa

HASIER ETXEBERRIA



MACARRA harekin esposatu zinenean, bihotza pitzatu egin zitzaigun, kra, ni bezalako mutil bat baino gehiagori. Akaso belanaldi oso bat baino askoz gehiagori. Kra.

Edertasuna, aristokrazia eta ausardia guztien eredu zinen Printzesa maitagarri horrek, bihotza baino zerbait gehiago eskaini zenion, kra, paparrean urrezko kateak luzituz ibiltzen zen putero hari. Geuretzat desiratzen zintuguna, oilar harro hark lortu zuen, kra, (engainuz seguruenik), kra, eta amodioak derri-gorrez behar zuela itsu izan ikasi genuen derrepentean. Kra.

Gero, macarraren ibilerak jasanezinak bihurtu zitzaizkizunean, berriro egin zuten habia gure bihotzetan esperantzaren uo zuria. Baina txalupazale aberats bat izan zen gu denon artean hautatutakoa, kra, eta harekin egin zenituen edadea galdu baino lehenagoko kumeak, kra, kra eta kra.

Urte bazuaren buruan, istripu lazgarri batek alargundu zintuenean, jantzi beltzek are ederrago egin zintuzten. Printzesa gurea, eta begietatik beharoko malkoak estaltzen zizkigun mantilaren azpian, jainkosutuagoa eta misteriotsuagoa begitandu zintzaizkigun, beste behin ere, gure Amodioetako Dama Eder Hori.

Arestian, berriro ere pozteko aukerak gunituenean, aktore frantses bat hautatu duzu, gu guztion artean, kra, eta berarekin espasotzeko planak dituzu aurki baino lehen. Kra. Beste behin ere pitzatu diguzu bihotza, kra, Carolina. Kra.

HEMEROTEKA

● EL DIARIO VASCO

Errealitateari egokitzea

Nafarroan PSN-PSOE eta EAren beligerantzia izan daiteke eragozpenik handiena trazaraketaren bermoldaketa aurrera ateratzeko. Bi alderdi horiek ezeko borobila eman zioten foru Parlamentuan edozein aldaketa tekniko sartzeari. Hala ere, Izquierda Unidak apurtu egin du PSN, EA eta IUren arteko 'aurrerakuntza blokea' deiturikoaren arteko bateratasun ekintza.

ALBERTO SURIO

● EL MUNDO

Aznarrek dauka hitza

Burgoseko epaiak erresumin



MANU / DEIA

apur bat baino ez du utzi, egia esan berarekin zerkusirik ez duena. Zergatik ez da aplikatu beste kasuetan oraingo honetan erabili den zuzentasun eta zorrotzasun bera, esate baterako 'Gerra kasuari' buruz Andalucia-ko Auzitegi Gorenak egunotan emandako ebazpen bixian? Bat ote da Justizia PPrekin zerkusita duten pertsonen eskandaluak aztertzeo eta oso bestelakoa inplikatuak PSOE-

ren ingurukoak direnean? Fillesa, Ibercop eta 'Juan Guerra' kasuaren hondarrek laster argituko digute.

EDITORIALA

● Diario de Navarra

Berenbaitaratuak

Azken finean, PSOEek bere

militeeteei eta batez ere Leguina bezalako militante garrantzitsuei hauxe eskatzen die: ahotsak batzea, desberdintasunak ez aintzat hartzea, kanpoko kritikarik ez onartzea eta siglako eta Exekutiboaren sinismen personal edo politiko ororen gainetik defendatzea.

PILAR CERNUDA

LUZENDARIARI

Mendillorri ere, ikastola bai

Etxe erosketak errazteko Nafarroako Gobernuaren politikaren barnean, Mendillorriko etxeak eraikitzen ari dira. Gaur egun Eguesko Udalerrian daude.

Etxeen ondoan, bizitzeko behar den azpiegitura ere sortu beharra dago. Eta egunkari batean, egin beharreko ikastetxeaz ere kezka azaldu da. Obrak oso astiro omen doaz.

Nik ere nire kezka azalateratu nahi dut. Hara bizitzera jende gartea joanen da. Eta euskararen aldeko jarraera edukiko dutenak ere ugari izanen dira.

Horregatik, behar-beharrezkoa jotzen dut Mendillorri ikastola bat egitea.

Nafarroako Gobernuak ikastetxe bat egiten ari bada, ez dezala ahaztu nik bezala beste batzuk ere hori nahiko dutela. Eta ez dadila etor bi adarreko eskola eskaintzen. Nik, bederen, ikastola nahi dut, ez besterik.

Hara bizitzera joanen direnak (gurasoak, eta oraindik seme-alabarik ez edukirik), erme egon daitezela. Orain da hori eskatzeko momentua.

Mendillorri Ikastola bat eskatuz, egunkarietara eskutitzak bidaltzea lehe-

nengo urratsa da. Asko garela ikus dezatela. Bidaltzen has zaitetzte, beraz.

JOSEBA OTANO

Iruñea

Karrantzako manifiari buruz Robertori

Orain egun batzu, Fernando Dizaren atxiloteta zela eta Robertoren eskutitza zoritxarreko aukera izan dut. Bestek beste, egunkari honetan argitaratutako gutun horretan zera irakur zitekeen: «Neu kanpooan izanik, jakinarazi zidaten Karrantzako manifiari ez zela bera joan ohi zen auzuneko jenderik, ez familiarik bildu, ezta 'koardrila' izan zeneko inor ere. Geroztik, herri-tik itzultzean, «Fer askatu» eslogana zera-maen hainbat pankarta eta pintaketa ikus zitezkeen. Halere, manifa horretan jende horren faltari zeharo azalgarri derituztunik, baina logiko ere nolana».

Roberto, burura datorkidan lehenago gausa zu non zeuden galdetzea da: Karrantzatik kanpo? edo manifikat at? Bigarren eskuo informazioarekin ibiltzea nire esti-

loa ez bada ere, lekuan errealitatea eta berria ezagutzea gustatzen baitzait, behingoz tankera hori erabiliiko dut Karrantzan zeundela jakinerazi zidatela esateko.

Fernandoren sendirik bildu ez zela egia bada ere, Karrantzan bizi den sende bakarra, zein manifa zegoeneko talde batek bisitatu zuen, adineko osaba da eta. Fernando joan ohi zeneko auzoko jenderik ez zegoela *gecu* galanta da.

Koardrila inor ez zela joan baieztapenari leku berezia eman nahi diot, eskutitz hau sinatzen duena eta koardrila beste lagun batzu han izan bait ginen. Idei batzuekin ados egon ez direnak, edo beraien ideekin kontsekuenteak ez direnak, edo Karrantzan auzuparria erakusten jakin ez dutenak dira joan ez zirenak bakarrak.

Azkenik, Fer edo Fernan izenari berdin dio, Euskal Herriko askatasuna eta eskubi-deen alde borrokatu duen lagun bera dugu eta.

Inoren aholkulari izan nahi ez badut ere, gauza bakoitza bere tokian utz dezagun, eta sentimendu ezkorren bat baduzu egia ez diren gauzak ez esan eta ez sartu inoren burua gezur horietan.

ARRITXO

Karrantza (Bizkaia)

GAIA JARRITA



Taugres — Real Madrid

Laugarren partidua atzokoan justu Simpson gelditu ezin ta zelaian nahastu bostgarrena Madrilen behar da jolastu Zurbanon gertatua utzi edo ahaztu Baskoniki txapelidun irten behar dauku.

GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORRELDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZAHARRETA, INAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Eredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia katu. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11